

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

##### Gazteria

#### **Gazte Informatzaileen Sarea 2020-2021 programaren barruan diru-hornidurak esleitzeko deialdiaren ebazpena**

2020ko ekainaren 19an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gazte Informatzaileen Sarea 2020-21 programaren barruan diru-hornidurak esleitzeko deialdiaren oinarriak. 2020ko uztailaren 10eko ALHAOn —77. zk.— argitaratu ziren oinarri horiek.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu delarik, 20 eskabide jaso dira, ikastetxe hauenak:

Arkaute nekazaritzako BHI, Koldo Mitxelena BHI, Sgdo. Corazón ikastetxea (“Corazonistas”), Lakua BHI, Francisco de Vitoria BHI, Los Herrán BHI, Egibide-Arriaga, Mendebaldea BHI, Egibide-Jesus Obrero, Olabide ikastola, Egibide-Mendizorrotza, San Prudencio ikastetxea, Egibide-Molinuevo, Miguel de Unamuno BHI, Egibide-Nieves Cano, Urkide ikastetxea, Ekialdea BHI, Adsis Gasteiz OLHI, Euskadiko Arte Eskola eta Goi-mailako Diseinu Eskola eta Sansomendi IPI.

Aurkeztutako proiektuak aztertu ondoren, Gazteria Zerbitzuko teknikariek txostena egin zuten 2020ko urriaren 6ko datarekin, eta deialdiaren oinarriak betetzen dituztenez, 20 ikastetxeetako bakoitzari 500 euroko zuzkidura esleitzea proposatu zuten —beraz, 10.000 emango dira, orotara, helburu horretarako—.

2020rako udal aurrekontuko 2020/ 0116.2371. 48936 partidaren bada aurrekontu-zuzkidura nahikorik gastu horri aurre egiteko.

Kontuan hartu dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikulua eta hurrengoak, eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzak arautzeko Ordenantza —Vitoria-Gasteizko Udalbatzak 2005eko ekainaren 17ko ohiko osoko bilkuran eman zion hasierako onespina, eta 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn (5. zenbakia) argitaratu zen—.

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkariak —ikusirik alkateak eskumenak eskuordetzeko 2020ko urriaren 1ean emandako dekretua, baita Udalaren dirulaguntzak arautzeko ordenantzaren 5.1 artikulua eta Tokiko Gobernu eraberritzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 127.1.g) artikulua— proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

#### Erabaki-proposamena

Lehena: Zerrendatzen diren 20 ikastetxeetako bakoitzari 500 euroko zuzkidura ekonomikoa ematea Gazte Informatzaileen Sarea 2020-2021 programaren barruan; guztira, 10.000 euro:

Arkaute nekazaritzako BHI, Koldo Mitxelena BHI, Sgdo. Corazón ikastetxea (“Corazonistas”), Lakua BHI, Francisco de Vitoria BHI, Los Herrán BHI, Egibide-Arriaga, Mendebaldea BHI, Egibide-Jesus Obrero, Olabide ikastola, Egibide-Mendizorrotza, San Prudencio ikastetxea, Egibide-Molinuevo, Miguel de Unamuno BHI, Egibide-Nieves Cano, Urkide ikastetxea, Ekialdea BHI, Adsis Gasteiz OLHI, Euskadiko Arte Eskola eta Goi-mailako Diseinu Eskola eta Sansomendi IPI.

Gazteria Zerbitzuaren 2020ko aurrekontuko 2020/0116.2371.48936 partidari egotziko zaio gastua.

Bigarrena: Ikastetxeei ebazpenaren berri ematea, eta orobat jakinaraztea horren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Hirugarrena: Deialdi honen barruan emandako dirulaguntzak Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitara daitezela agintzea, baita ALHAOn ere, ikastetxe onuraduna, emandako zenbatekoa eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzaren 14. artikuluan galdatzen den gainerako informazioa zehazten delarik.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 19an

*Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko koordinatzaile nagusia*  
**JONATAN MORENO CARRANZA**